

TRINTXERPEN GERTATZEN ARI DA

Trintxer Elkarte, geldirik utzi ez diezagukeen gertakari oso larri baten protagonista dugu.

27 urtez jarduera politiko, kultural, sozial eta gastronomikoaren ostean, elkarte honek Euskadi Etorbidea 29an duen egoitza, espolioazioaren biktima bihurtu da, Auzitegi Nazionalak emandako aginduaren bitartez.

Jokaera honek, trintxerpetarron banakako zein taldeko askatasun eta eskubideei eragiten dio, bizikidetasuna eta identitate kolektiboak garatzeko dagoen desira, nahasi egiten ditu erabat, etengabeko eraldaketa eta garapeneko euskal identitate nazional batean oinarrituta dagoen, gizarte justu eta solidarioago bat sortzeko nahia ere, lardastuz.

Trintxer Elkartearekiko elkartasuna eta espolioazio nahiz gehiegikeri honekiko gaitzespena adierazten dugu.

Elkarteak, urteak daramatza herriko Karmengo jaietan herri kirolak, bote eta tokako jokoak eta sardinada herrikoia antolatzen eta aurten ere, bertsolariak ekarri ditu herrira.

Trintxer Elkarte jasaten hari den jazarpenarengatik, aurten, sardinada herrikoia antolatzeko aukerarik gabe gelditzen da. Horregatik sardinadaren orde, ohiko lekua, elkartearekiko elkartasuna adierazteko erabiliko da, noski, jai giroa mantenduz. Horregatik trintxerpetar guztioi, deialdi honetara gonbidatzen zaituztegu, duela 2 urte bere 25. urteurrena bete zuen elkartearekin, zuen elkartasuna adierazi dezazuen.

Uztailaren 18a Larunbata, Azokan arratsaldeko 19:00etan: Gora Trintxer Elkarte!

TRINTXER LIBRE ETA ZABALIK!

HERRIKO
TABERNAK

LIBRE
ETA
ZABALIK

Trintxer Elkarte
25
1992 - 2015
Urteurrena